

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2015/16

**Ikastegia**

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea (Gasteiz)

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Ikastaroa**

2. maila

**IRAKASGAIA**

25952 - Gizarte Baliabideen Behatokia

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

**AZALPEN LABURRA**

Irakasgai hau, E moduluari Praktikak eta Gradu Amaierako Lana dagokio, non titulazioko kreditu kopuru handiena metatzen den. Bertan Gelako Praktikak (24 ECTS), Kanpo Praktikak (32 ECTS) eta Gradu Amaierako Lana (10 ECTS) daude.

Modulu hau, konpetentzia profesionalaren garapenarekin estuki lotua dago. Horrela, ikasleek jardute profesionalerako ezagutza zein oinarriko konpetentziak bereganatzen dituzte; bertan Gizarte Langintzaren esku hartze zein ikerketa laburbiltzen dira. Moduluaren helburua jardute profesionalera hurbilpena da eta titulazio osoan zehar eskaintzen da, azkeneko kurtsoan practicum eta Gradu Amaierako Lana izanik. Zerikusia duten irakasgaiak: gizarte errealitateen behatokia, jardute profesionalerako sarrera, kanpo praktikak: practicum, hezkuntza gainbegiratzea eta etika profesionala eta Gradu Amaierako Lana.

Gizarte-errealitatearen ondorioz sortutako behar, gabezia eta problematikei erantzuteko dauden gizarte-baliabideen ezagutzarako lehenengo gerturatzea eskaintzea da irakasgai honen helburua. Honetarako gizarte-babes sistema nagusienak aztertu egiten dira.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

**IRAKASGAIAREN GAITASUN ZEHATZAK:**

- (GZ1) Gizarte-babes sistema nagusien enpresa orokorra, gizarte-baliabideak ezagutu eta horniketa moduak ulertu (MO6CMO4).
- (GZ2) Informazio iturri ezberdinak erabiliz gizarte-baliabideen inguruan txostena egiten ikasi (MO6CMO7).
- (GZ3) Gizarte-babes sistemak oinarri bezala hartuta, hobetuko duten praktika onen diseinua garatu (MO6CMO3).

**EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK**

**ANECAK ONARTURIKO EDUKIEN DESKRIBAPENA**

Irizpide ezberdinen arabera baliabide sozialen sailkapena:

- Erakunde erak: administrazio publikoa, hirugarren sektorea, enpresa.
- Kudeaketa eredua: zuzena, ez-zuzena.
- Babes sozialen sistemak: gizarte zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, sarreren bermea, e.a.

Babes sistema era nagusiak eta dagokien baliabide sozialak: gizarte zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, sarreren bermea, etxebizitza, enplegu eta formakuntza, justizia.

Ahozko zein idatzizko komunikazio trebeziak, abilezia inter-pertsonalak batik bat.

Aurreko horretan oinarriturik, irakasgaia hiru atal nagusien arabera egituratzen da:

1. Babes sistema nagusiak eta dagokien babes sozialak.
2. Babes sistemen arabera gizarte baliabideen lurralde analisi eta eremuen finkatzea.
3. Gizarte baliabideen lurralde beharren diagnosis eta praktika onen lantzea.

**METODOLOGIA**

Irakasgaiaren izaera praktikoa dela eta, metodologia partehartzaile eta aktiboak gailentzen dira. Horregatik irakaskuntza

gelako praktikak oinarri dutela egituratuko da. Zehazki, honako irakaskuntza era hauek nabarituko dira:

- Azalpen teorikoak.
- Formazio jarduerak.
- Banakako lanak.
- Talde lanak.

**IRAKASKUNTZA MOTAK**

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	15		45						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	22,5		67,5						

**Legenda:** M: Maistrala S: Mintecia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.  
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

**EBALUAZIO-SISTEMAK**

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

**KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK**

- Banakako lanak % 30
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 70

**OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

EBALUAZIO SISTEMARI DAGOKIOLA:

Ebaluaketa sistema jarraia izango da. Bertan, lanak, berauen aurkezpenak eta saiotan parte hartze aktiboa hartuko dira aintzakotzat. Lanen entregatze soilak ez du irakasgaia gainditzea ziurtatzen, dagokien konpetentziak ere lortu beharko dira. Hauek dira lanen ebaluazio portzentaiak:

- Babes sistemen lurralde mapa eta honen inguruko txosten idatzia (talde lana) (Nota finalaren %25).
- Lurralde eta babes sistema jakin baten testu inguraturiko praktika onaren diseinua (talde lana) (Nota finalaren %45).
- Testu inguratze analisisa (banakako lana) (Nota finalaren %30).

Ebaluazioaren parte guztiak gaindituak egon beharko dira irakasgaia gainditzeko. Atalen bat gaindituko ez balitz, gainditutako atalen nota gordeko da ezohiko deialdirako.

AZKEN EBALUAZIOAREN SISTEMA ESKATZEKO PROZEDURA:

Ikasleren batek, arrazoi justifikatuak direla eta (Ikasketen Gestiorako Arautegiaren 43.c, art. jarraiki), irakasgaiaren azken ebaluazioaren sistema jarraitu ahal izateko, dagokion irakasgaiko irakasleari jakin arazi beharko dio, zentruak ezarritako - Azken ebaluazioaren sistema jarraitzeko eskaera prozesua- dela medio (ikus web gunea).

Azken kasu honetan, garatuko diren lanak (guztiak banakakoak) eta ebaluazio portzentaiak hauek dira:

- Babes sistemen lurralde mapa eta honen inguruko txosten idatzia. (Nota finalaren %25).
- Lurralde eta babes sistema jakin baten testuinguraturiko praktika onaren diseinua. (Nota finalaren %40)
- Nahitaez erabili beharreko materialetan oinarrituriko froga finala (Nota finalaren %35).

Sistema honetan ere, ebaluazioaren parte guztiak gaindituak egon beharko dira irakasgaia gainditzeko.

ESKOLETARA ETORRERARI BURUZ:

Etorrera %80an behintzat konplitzea beharrezkoa da. Hala horrela ez balitz, eta ikaslea ez etortzeko arrazoi justifikatua edukiko ez balu, ohiko deialdian SUSPENTSOREKIN izango da kalifikatua.

Aurreko guztia kontuan harturik OHIKO DEIALDIARI UKO EGITEKO BIDEA:

Deialdiari uko egiteko, lanetariko bat ez aurkeztearekin nahikoa da (azken ebaluazioaren sistema jarraitzen duenak, lanetariko bat aurkezten ez bada edo azterketara aurkezten ez bada). Kalifikazioa: EZ AURKEZTUA izango da.

**EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ezohiko deialdiari uko egiteko, nahikoa da ebaluazio ataletariko bat ez aurkeztearekin.

#### **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

Egelan eskegiko dira irakasgaiari erabili beharreko materialak, testu osagarriak eta irakaslearen oharrak.

#### **BIBLIOGRAFIA**

##### **Oinarrizko bibliografia**

Egelan eskegiko dira irakasgaiari funtsezkoak diren testuak.

##### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

- ARARTEKO (2007):Gazteentzako etxebizitza politika publikoak EAEn. Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia, Vitoria-Gasteiz. [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0\\_281\\_1.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_281_1.pdf)
- ARARTEKO (2008). Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioarteko eta autonomietako aurrerapausuak. Hurbilketa. Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia, Vitoria-Gasteiz. [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0\\_1357\\_1.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_1357_1.pdf)
- Fantova, Fernando (2014). Diseño de políticas sociales. Fundamentos, estructura y propuestas. Madrid: Editorial CCS
- Roldán, Elena y García, Teresa (2006). Políticas de servicios sociales. Madrid: Síntesis

##### **Aldizkariak**

- Cuadernos de trabajo social. (Gizarte langintzan espezializatua)
- Revista Documentación Social.
- Revista Española del Tercer Sector
- Revista Portularia (Gizarte langintzan espezializatua)
- Revista Servicios Sociales y Políticas Sociales.
- Zerbitzuan

##### **Interneteko helbide interesgarriak**

- [www.siiis.net](http://www.siiis.net) SiiS Ikerketa eta dokumentazio zentroaren web orrialdea.
- [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net) Arartekoaren webgunea

#### **OHARRAK**

Bi ebaluazio sistematarako, lanak entregatzeko epeak egelan eskegiko dira, 2. lauhilabetea hasi baino lehenago.